



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza

**Igandea
2009-05-17**

VII. URTEA 1.704. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Aresoko udaletxearen aurrean jolasean aritu ziren goizean. A. IMAZ

LEITZA, GOIZUETA ETA ARANOKOEN BISITA IZAN DUTE ARESOKOEK

ARESO Aresoko, Leitzako, Goizuetako eta Aranoko eskoletako haurren eta gurasoen X. Topaketa izan zuten atzo, egun osoan 4

NEREA SANCHO SEXOLOGOA


«Norbera gizon edo emakume bezala sentitzea da sexualitatea»

ALTZO Irakurleen galderak erantzuten izan da HITZaren erredakzioan; «oso gustura» aritu da 6-7



Ezker abertzaleak grebara deitu ditu herritarrak

TOLOSALDEA «Aldaketa politiko eta sozialaren alde» egiteko egin dute bat Greba Orokorrekin 5



Perkusio ikastaroa izan zuten Plaza Berrian. E. EZEIZA

Giro polita izan da nagusi bigarren Txapin Festan

TOLOSA Ekitaldi ugari izan zituzten atzo egun guztian zehar; bazkarian 100 lagun elkartu ziren 5

Opio dosi handiago bat



» **Uzturretik**

Iraitz Lizarraga

Erlijioa omen zen gizartearen opioa Marxen ustez; gizartearen alienazioaren faktore nagusia. Bertsio modernoago batek futbola ipintzen du erlijioaren tokian: azkenaldi honetako panorama ikusita, ez zaio arrazoirik falta!

Gehienek benetan eta gutxi batzuk soilik hitzetan pairatzen du-

ten krisi garai honetan, inoiz baino zaletu sutsuagoak bihurtu gara: Bartzelonako kaleetan ez da besterik entzuten: Guardiola da mesias berria eta urdina eta granatea, beste kolorerik ez da esistitzen. Zer esanik ez munduko hiriburuan, Bilbon alegia: lehoietan espezializatutako zoologiko zuri-gorria! Katedrale eta guzti duen erlijioa puri-purian egon da azkenaldian!

Badirudi krisi ekonomiko, kultural eta esistentzial garai hauean, gizakiok inoiz baino gehiago behar dugula zerbaiten parte sentitu: gure espeziekoekin bat egin, munduan bakarrik ez gaudela sentituz, gure hutsunea bete. Norberaren ahotsak beste milaka pertsonen ahotsarekin bat egiten du gol bat oihukatzeke, garaipena ospatze-

ko, adrenalina askatuz eguneroko frustrazioak gutxienez 90 minutuz ahazteko.

Kolore jakin batzuk, himno bat, 22 tipo kantontzilatzen pilota baten atzetik eta geure bizitzak zentzua hartzen du: Hurrengo eguneko ajearekin etorriko zaizkigu berriz ere eguneroko kezak: hipoteka, lana edo honen gabezia, kotxea, gerrak... Baina momentu batzuek bederen, ez gara honetan arduratuta egon; momentu batez, geure agintariak pakean utzi ditugu, ez dugu errudunik bilatu nahi izan, ez dugu euren kontra egin, are gehiago, beraiekin bat egin dugu (seguru ohorezko palkoan eserita zeudela!). Opio dosi handiago bat, arren, piztiak baretzeko...

Zer esanik ez... funtzionatzen du: ni neroni *kasualitatez* Bilbon nintzen asteazkenean: zerbait ospatzeko aitzaki baten bila, erraz murgildu nintzen itsaso zuri-gorrian, gipuzkoarra eta orain artean militante anti-futbolista nintzela ahaztuta: Helburua bera ere kontuan izan gabe, noski! Copa del Rey irabaztea... «Rey». «Ze Rey?» Eta nire errepublikanismoa? Dena emanda aritu nintzen animatzen nirekin zerikusirik ez duten tipo batzuk, zertarako eta Juan Carlosen emandako zilarrezko orinal bat irabazteko! (Eta kalamidade horiek gainera 4-1 galdu! Enfin...).

Ené! Bai, oraingo honetan bai, nire bizitzak zentzua hartu du... Opio dosi handiago bat, arren!

Laburrak

Presoen aldeko firma bilketa hilaren 22ra arte

AMEZKETA • Presoen aldeko firmak biltzeko azken eguna datorren ostirala, hilak 22, izango da. Amezketako ezker abertzaleak herritar guztiei luzatzen diete deia atxikimendua luzatu dezaten.

Gaixo Eguna izango da gaur goizean parrokietan

TOLOSA • Seigarren Pazko igandean Gaixoen Eguna izan ohi da parrokietan, eta hori dela eta, Gaixoen Oliadura Sakramentua ospatuko dute, adinagatik edota gaixotasunagatik sakramentu hori hartu nahi dutenekin. Hala, gaur, 11:00etan Santa Maria parrokian, emango diete Oliadura gaixoei, eta 12:00etan San Frantziskon.

A Argazki zaharra



San Isidro Eguneko aspaldiko kontuak

TOLOSALDEA • San Isidro Eguna izan zen herenegun, eta eskualdeko hainbat herritan ospatu zuten, ohikoa den moduan. Tradizio handiko eguna da San Isidro irudietan ikus daitekeen bezala: ezkerrean, 1963ko San Isidro Egunean eginiko aizkora apustua, Amasako Andrategi baserriaren parean. Errekako Joxe Arteaga ari da aizkora, Martineko Pedro Iarola eta Mikeligartzako Valeriano Iartza laguntzaile dituela; ondorengoa, 1964koa da, Amasako Mal-

korra baserriko Jose Luis Sarasola eta Esolako Pedro Mari Iguaran ageri dira, aizkora aritu ostean. Eskuinean, goian, 1965ean, Malkorrako Jose Luis Sarasola, harriarekin, eta ondoan, Muñiki baserriko Xanti Lazkano. Eskuinean, behean, 1967. urteko argazkia dugu. Asteasuko Irazu baserriko Xanti Ipintza eta Adunako Bordabe baserriko Jose Martin Mendizabal Amasako plazan ari dira emanaldia eskaintzen. AMASA-VILABONAKO ERRETRATU ZAHARRAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko **HITZA**n jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Isidro Deunaren eragina nabaritu da larunbateroko azokan

Tolosa » Mahaietan oso eskaintza zabala eta jende ugari izan zen; babak eta ilarrak dira nagusi barazkietan.

PABLO ALBERDI

Atzoko eguzkiak oso eragin positibo izan zuen azokan. Jendea kalera ateratzera bultzatu zuen, eta ekoizleei oso egoera aproposa suertatu zaie baratzako lanari ekitako.

Isidro Deunaren eragina oso baikorra izan dela esan dezakegu, beraz, eta mahaietan ere oso eskaintza zabala ikusi ahal izan genuen. Babak eta ilarrak nagusi barazkien artean, onddo eta ziza asko perretxiko postuetan, eta apaingarriko landare eskaintza izugarria Berdura Plazan.

Baratzeko landareen postuetan jendetza ugaria ikusi ahal izan genuen. Unea oso aproposa da barazkiak landatzeko, eta asko izan ziren hauxe aprobetxatu zutenak.

» ATZOKO AZOKA

BERDURA PLAZA Merk. Gares. Landareak

Alegria	1,20	-
Erromeroa	4,00	6,00
Klabeledina	6,00	-
Xarbota	4,00	6,00
Geranioa	2,00	-
Salbia	1,00	1,20

BERTAKO PRODUKTUAK

Fruta		
Errezil sagarra	0,60	5,00
Intxaurra	2,50	4,00
Urta	2,00	3,00

Perretxikoak

Ziza	20,00	42,00
Onddoak potetan	9,00	-
Onddoa	32,00	-

Barazkiak (kiloa)

Tolosako babarruna	10,00	12,00
Tomatea	3,00	-
Porrua	1,00	3,00
Babarrun zuria	8,00	-
Kalabaza	1,50	3,00
Patata	1,00	1,50

Besteak

Ogi biologikoa (900gr)	3,20	-
Arrautzak	2,50	-
Artisau ogia	2,80	3,70
Madalenak (500gr)	3,60	-
Irasagarra	3,00	6,00

Gaztak

Gazta berria	17,00	-
Ardigazta	14,00	24,00

PRODUKTUEKOLOGIKOAK

Sagarra	2,00	3,00
Azenarioa	2,00	2,50
Baraturia	1,60	6,00
Arroza	1,90	2,00

Maiatzak 21 Greba Orokorra

» Iritzia

Mari Mujika
LABen Tolosaldeko arduraduna

Patronala eta bankak «krisiaren aurreko neurriak» eskatzeari ekin diote etengabe eta administrazio ezberdinek neurriak martxan ipiniko dituztela iragartzen dute. Baina hauek guztiak norabide berdinean datoz. Inork ez dezala pentsatu eurek sartu gaituzten krisi honetarik «salbatuko» gaituztenik. Euren irabazi mailari eusten jarraitu ahal izateko neurriak dira horiek guztiak, langileok are gehiago estutzean oinarritzen direnak: kaleratze gehiago eta guztiak doakoak, espedienteak zuzenean onartu, kapitalaren zergak jaitsi eta langileonak igo, gastu soziala murriztu, zerbitzu publikoak merkantzia bihurtu, lan baldin-

tzak kaskartu, jardunaldia luzatu eta malgutu...

Enplegua eta lan eskubideak defendatu beharra dauzkagu, tinko eta xantaiarik onartu gabe. Geure kontura aberastu dira, aberasten ari dira eta aberasten jarraitu nahi dute. Ez dugu onartuko gure lan eskubideetan atzerapausorik patronalak eskandaluzko bere bizi mailari eusten jarraitu dezan. Bide horrek ez dauka bueltarik, kapitala ez baitago sekula ase, eta eraso baten ostean beti dator latzago bat. Ezinbesteko da orain arte erabili duten dinamikarekin aurrera. Patronala eta Administrazioek ezin dute euren kabuz erabaki guztiak hartzen jarraitu. Langileok erabakietan parte hartu behar dugu buelta eman nahi badiegu.

Azken 30 urteotan aberastasuna gero eta esku gutxiagotan kontzentratu da. Hauxe da krisialdi

honen arrazoi nagusi bat. Hortaz, benetan krisialdi honetatik irten nahi badugu, aberastasuna modu justuan banatu dadila lortzea ezinbestekoa da. Langileok gara aberastasuna sortzen dugunak, ez enpresaririk, ez bankerorik. Eta administrazioen paperak ezin du jarraitu izaten azken hauen mese-

«Ez dugu onartuko gure lan eskubideetan atzerapausorik patronalak bere bizi mailari eusteko»

detan dagoen morroiarena. Herriarren botoa eskatzen duten horiek ondasunak herritarrei bueltatzeko tresna izan behar dira.

Sistema kapitalista osoa da krisian dagoena, baina, hala ere, gutbertan itotzen jarraitzeko asmo

sendoa daukate. Langileok buelta eman behar diogu, baina ez euren eskuetan, baizik eta benetako aldaketa lortzen, eredu ekonomiko eta soziala errotik aldatzen, horixe izango baita modu bakarra behingoz ekonomia pertsonen mesedetan planifikatua izan dadin eta ez alderantziz.

Aldaketa horiek ez dira egungo instituzioetatik etorriko, langileak eta herri sektoreak borrokatu behar ditugu, enpresetan eta kalean mobilizatzen eta erantzuten. Baina, sistema kapitalista honek kolpatzen bagaitu, jauziak ere egin beharko ditugu, batera, eredu gaitik behera eraldatzeko eta justizia sozialaren parametroetan erakitzeko. Horregatik maiatzaren 21ean Euskal Herria geldituko dugu, argi uzteko ez gaudela prest euren krisia gehiago sozialaren kontura "konpon" dezaten.

B Blogteka .info

Kamixetak Sahara bidaltzeko kanpaina

Berri honen bitartez Kirikiñon aurrera eramango den Saharako haurren aldeko kanpaina eraman nahi dugu ezagutzera.

Iaz bi kanpaina ezberdinetan banatu zen ekimena, hau da, alde batetik kamixetak eta beste alde batetik eskolarako erabilgarria den materiala jaso ziren Sahara bidaltzeko. Kanpainak izan zuten erantzun ona ikusirik aurten biak elkartzea erabaki da eta Kirikiño Aisialdi Taldeko Helduak zikloko gazteek eramango dute aurrera.

Kanpainaren aurkezpena larunbat honetan egin osten, maiatzaren azken bi larunbategi, hau da, maiatzaren 23an eta 30an jasoko da material guztia. Horregatik etxean erabiltzen ez dituzten kamixetak edota erabiltzen ez duzuen eskolarako materiala baduzue, lehen aipatutako bi asteburuetan 16:00etatik 18:00etara Hirukide Eskolapioetara igotzeko eta bertan uzteko eskaera egin nahi dizuegu. Bi

egun hauetan ikastetxera igotzeko aukerarik ez baduzue, Hirukide idazkaritzetan kaxak jarriko dira materiala bertan utzi ahal izateko.

Hirukide ikastetxearen bloga
<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/hirukide/>

Rock doinuak izan ziren entzungai Zerkausian

Larunbatean rock doinuak entzun ahal izan ziren Tolosako Zerkausian, Tolosako Musika Bandak eskaini zuen Udaberri kontzertuan.

Full option obran, esaterako, Iban Gurrutxaga gitarra elektrikoarekin izan zen bakarlarria eta Mikel Atxega ere laguntzaile izan zuten, baxu elektrikoarekin.

Abesti horren zatia ikusgai dago Interneten, nahi duen ororentzat, <http://www.youtube.com/watch?v=irXwSD86q-0>, helbidean.

Tolosako Musika Banda
<http://www.tolosaldekohitza.info/blogak/banda/>

Aquariumera irteera Baliaraindik

Baliarraingo herritarrek, Guraso elkarteak antolatuta, Donostiako Aquariumerako irteera antolatu dugu. Maiatzaren 30ean izango da eta herriko plaza 15:00etan aterako gara, Ikaztegietatik tren 15:30etan tren hartzeko.

Kotxez joan nahi duenak aukera ere izango du eta horiekin 17:00etan elkartuko gara Aquariumeko sarreran. Ondoren, Donostiako Alde Zaharrea zehar ibiliko gara eta merienda egingo dugu.

Baliarraingo Udalak diru laguntza eman dio urtean zehar haur eta gurasoen artean ekitaldiak egiteko egitasmo honi eta maiatzeko ekitaldi honetarako, umeen aquariumerako sarrerak ordaintzeko erabiliko dugu. Anima zaitzete! (ez da izena inon eman behar, bertara azalztearekin soilik nahikoa izango da).

Baliaraindik.

Ibarrako plazako kamararen inguruan

Idatzi honen bidez Ibarrako udaletxeari komunikabideetan egun hauetan ikusi dudana albistearen inguruko informazioa eskatu nahi dion.

Irakurri dudanaren arabera kamara bat jarriko omen dute udaletxean izan diren erasoak ekiditeko, baina, betiko galdera botako dut: zeinek ikusiko ditu grabatutako irudiak? Zeinek kontrolatuko ditu kontrolatzaileak?

Udaletxe ataria baino plazan gertatzen den guztia grabatuko dute, eta niri behintzat nire intimitatea bortxatua izango dela iruditzen zait.

Beste galdera bat: ibararren iritzia hartu al dezue kontutan erabakia hartzeko? Zeinek hartu du erabakia? Zergatik ez diguzue galdetu? Nik behintzat azalpen gehiago behar ditut. Beste-rik gabe. Erantzunaren zain geratzen naiz.

Imanol.

@ Zurea da hitza. Eskualdeari buruzko albisteak eta iritziaz sartzeko aukera ematen dizu gure webguneak, *Zurea da hitza* izeneko atalean. *Zurea da hitza* atalean sartu, albiste edo iritzia sartu eta datuak eman besterik ez duzu egin behar horretarako. Albisteak sartzeaz gain, argazkia sartzeko aukera ere baduzu, modu errazean. Zure albisteak sartzeko aukera duzun bezala, sartuta dauden albistearen inguruan iritziaz emateko aukera ere baduzu nahi zianez gero:

www.tolosaldekohitza.info



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Tolosako Udala
IRAGARKIA

Tolosako Udalak, Udaltzaingoko agenteen Lan-Poltsa sortzeko asmoa du dauden hutsuneak eta etorkizunaren sortuko diren beharrik bete ahal izateko,

Oinarriak eta eskaera egiteko orriak, Tolosako Udaletxe Informazio eta Erregistro Zerbitzuan daude interesatuen eskura, Plaza Zahar 6 A zikian, edota udaleko web orrian (www.tolosakoudala.net).

Eskaerak aurkezteko epea 2009ko ekainaren 1ean bukatzen da.

Tolosan 2009ko maiatzaren 12an.
ALKATEA,
JOKIN BILDARRATZ SORRON



Hamar urtez Anoetako gazteen etxea

ANOETA • Hamar urte hauetan Anoetako gazte ugariaren biltoki izan da Gaztetxea. Atzo, urteurren hau ospatzeko asmoz, 80 anoetar inguru bildu ziren bertan bazkaltzera. Ekitaldian, gutun bat irakurri zuten Gaztetxearen sorreran parte hartu zutenek. Bertan azaltzen zuten nola garai haiek gogoratzean bitako oroitzapenak etortzen zaizkien: festa eta lanarenak. Hamar urte hauetan gauza batzuk aldatu direla diote, baina beste batzuek egun ere bizi-bizirik jarraitzen dutela eta jarraituko dutela argi dute. Esaterako, ilusioak, lanerako prestutasunak, eta parrandarako gogoak. E. EZIZIA



Haur, Guraso eta Eskolen Arteko X. Topaketa burutu zen atzo Areson. Goizean jolasean aritu ziren haurrak. A. IMAZ

Leitzako eta Aresoko Eskolak X. Topaketan

Areso » Haur, Guraso eta Eskolen Arteko Topaketan Goizueta eta Aranoko Eskolak ere jaiarekin bat egin zuten.

ASIER IMAZ

Areson herriko eskolako haurrek eta gurasoek bisita izan zuten atzokoan. Izan ere, bertan burutu zuten Aresoko, Leitzako, Goizueta eta Aranoko eskoletako haurrek eta gurasoek X. Topaketa.

Eguraldia ere jaiarekin bat

Haur, Guraso eta Eskolen Arteko X. Topaketarekin oso gustura agertu ziren parte-hartzaileak arratsaldean: «Beti eguraldiarekin borrokan ibiltzen gara Areson eta gaur eguraldi bikaina eduki dugu egun guztian».

Lau eskoletako kideak 11:00ak inguruan elkartu ziren Aresoko udaletxearen aurrean. Denborarik galdu gabe jolasean hasi ziren, batzuk frontoian eta besteak herrian zehar altxorraren bila.

Leitzako eta Goizueta haurrek eguerdian txistu eta dantza saioak eskaini zituzten, azken

haiek herrian barna Zagi Dantza egin zuten. Indarrak berritzeo ondoren denak bazkaltzera joan ziren.

Gimnasio gela leporaino

Arratsaldean Aresoko Eskolara joan ziren, gimnasio gelara. Txikia izan arren, gerturatu zirenek handi egin zuten, ikuskizun polita ikusteko aukera egon baitzen bertan.

Herriko ikasleak txaranga moduan sartu ziren jende artetik oholza lanak egiten zituen txokora. Ondoren gaztetxoek antzerki lan polita eskaini zuten, Topaketa ezberdinetako argazki emanaldi eta guzti.

Etxekeon ondoren Erletako 5. mailako ikasleak irten ziren ohial atzera. Andereino Josepiren eta bere ikasleengoa gora beherekin algar bat baino gehiago sortu zuten ikusleentzatean.



Finaletik kanpo geratu zen Beotibarren Mikel Olazabal. ASIER IMAZ

Mikel Olazabalek 22-14 galdu du Beroizen aurka

Areso » Beotibarren jokatu du Olazabalek partida eta Beroizen aurka galdu ostean Bigarren Mailako finalatik kanpo gelditu da.

ASIER IMAZ

Mikel Olazabal ez da Bigarren Mailako Banakako Txapelketaren Finalan egongo. Tolosako Beotibar pilotalekuan aresoarrak galdu egin zuen 22-14 Beroizen aurka atzo arratsaldean.

«Pena izugarria»

Beotibarrek sarrera polita eduki zuten atzokoan. Olazabalen eta Beroizen artekoak ikusmina sortu zuten. Partida jokatu aurretik, bi pilotariek bazekiten finalean Argote zutela zain.

Beroiz indartsu hasi zen, bere ezaugarri nagusia izaki. Sakean ere ikusgarri asmatu zuen, ez zizkion

alferrik egin 9 tanto Olazabali modu honetara. Aresoarrak bi bakarrik sartu zizkion.

Olazabal ez zen fin ibili. Airez saiatu zen nagusitasuna ezartzen baina ez zuen jarraipenik eduki. Markagailuan gehienez atzetik joan zen eta Beroiz oso nekaturik iritsi baldin bazen ere amaierara Olazabalek etzion etekinik atera neke honi.

Partida amaieran ondorengo hitzak egin zituen Mikel Olazabal aresoarrak: «gogo handiarekin irten naiz baina hankak ezin mugitu ibili naiz frontoian. Azken zatira nekatuta iritsi gara, bera lehertuta ikusten nuen baina gehiago asmatu du eta pena izugarria izan da niretzat. Sakearekin ez dut asmatu, berak nireak erantzun behar zituenean keinu egiten zuten, airez sartuko balitz bezala, baina gero berriro atzera joaten zen eta horrek pixka bat nahastu egin nauela uste dut».

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Intza.** Herriko plazan 300 urteko etxea garajearekin bertako eran sendotuz eraberritu eta estreinatzea, modu onean salgai. Ezinduentzako egokitua. Aralarko magalean landetxea jartzeko aukerarekin. Harremanetarako telefonoak: 628 03 07 27 / 6092183 41 / 646 1114 85. Posta elektronikoa: estanga_intz@hotmail.com

Giro oso onean ospatu dute herriko gazteek II. Txapin Festa

Tolosa » Hainbat ekitaldi izan ziren egun guztian zehar Abastosen eta Plaza Berrian; 100 lagun inguru hurbildu ziren bazkarira.

ESTI EZEIZA

Txapinak etxean utzi, zapatilak jantzi eta kalera atera ziren atzo hainbat eta hainbat gazte, Txapin Festa ospatzera. Goizean goiz, potearekin eman zioten hasiera festari. Herrian barrera, gazte lokal eta lonjetan geldialdiak eginaz eman zuten itzulia parte-hartzailerik. Horrela hasi ziren motorrak berotzen.

Ondoren, Mulambo perkusio taldekoak etorri ziren gazteei gorputza astinduarazteko. Lehendabiziko ikastarotxo bat eman zieten 15 lagun ingururi, Plaza Berriko kioskoan. Nabarmenezkoa da, ekitaldian parte hartu zuten gehienak berastegiarrak zirela. Ondoren, ikasitako praktikan jartzeko,

kalejira egin zuten, festa giroa herrian zabalduz.

Eguerdiari, 100 lagun inguru bildu ziren Abastosen, bazkaltzeko. Akiulurekin elkarlanean, gazte baseritarren produktuekin prestatu zuten ordukoa. 17:00ak jotzerako altxa ziren mahaitik eta jandakoak botatzeko, herri jolasak egin zituzten. Eguraldi ona egiten zuenetz, Plaza Berrian egin zituzten hauek.

Arratsaldean, aurreikusita zegoen *gazteak artez blai* ekimena. Hau, aurtengo berrikuntzetako bat izan behar zuen, eta GKO Gale-riakoekin elkarlanean antolatu zuten. Baina azken orduko arazo batzuk medio, bertan behera geratu zen ekimena.

Festari musikarekin eman zioten amaiera. Tolosaldeko talde ezberdinak igo ziren eszenatokira, tartean, Unsain anaiak, Kantafloor, Lobo Electrico eta Dj Aizpun. Kontzertuak gauerdian amaitu baldin baziren ere, goizaldera arte luzatu zuten batzuek festa.



Goizean, Mulambo perkusio taldekoek ikastaroa eman zuten; arratsaldean, herri jolasak egin zituzten. E.E./A.I.

Aldaketa politiko eta sozialaren alde, grebara deitu du ezker abertzaleak

Politika » Hilaren 21eko Greba Orokorreko mobilizazioetan parte hartzeko eskatu diete Tolosaldeko herritarrei.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko ezker abertzaleko ordezkariak agerraldia egin zuten herenegun Apatta Erreka industri-gunean, hilaren 21eko Greba Orokorrekin bat egiten dutela adierazteko. Honenbestez, egun horretan bertan antolatzen diren ekimen guztietan parte hartzeko deia luzatzen diete eskualdeko herritarrei, «aldaketa sozial eta politikoaren alde aktibo izan daitezten».

Ezker abertzalekoen iritziz, «alternatiba ez da kapitalismoaren birsortzetik etorriko, baizik eta herritarren eskubide eta beharrak oinarri dituen eredu berri bat eraikitzen». Hori dela eta, marko konstituzional hau gainditu eta bestelako eszenatokira demokratikoki parte hartzeko deia luzatzen diete eskualdeko herritarrei, «aldaketa sozial eta politikoaren alde aktibo izan daitezten».

Bestalde, aipatutako aldaketa politiko eta sozialaren bidean ezin-



Tolosaldeko ezker abertzaleko hainbat ordezkari agerraldia egin zuten Apatta Erreka industrialgunean. E. EZEIZA

bestekotzat jotzen dute «gehiengo sozial soberanista eta progresista honen indar metaketa». Ezker abertzaleak garbi du, norabide horretan egingo duela lan.

Maiatzaren 21a, «trukaturako argazki instituzionala eta benetako errealitate soziala pare pare jartzeko eguna» izango dela dio ezker abertzaleak, eta orduan ikusiko dela, «argi eta garbi, herri honetan, badagoela nahiko indar al-

daketa politiko eta soziala gauzatzeko».

Testuinguru ekonomiko, politiko eta soziala

Herenegun egindako agerraldian, eskualdeko egoera ekonomikoaren berri ere eman zuten ezker abertzalekoek. Beraiek luzatutako datuen arabera, Tolosaldean, egun 2.289 langabetu daude, 2008ko apirillean baino 675 gehiago. Gai-

nera, hauetako askok langabezia saria bukatuta edo bukatzeaz dute. Gainera, krisiaren aitzakian, gero eta enpresa gehiago dira EREak dituztenak. Tolosaldean, zehazki, 12 dira. Halaber, 688 langile eta familiarri eragiten diote eta hauek, azken bost hilabeteetan eman direnak dira soilik. Datu hauek 2009ko apirilera arte dira ikusita, ezker abertzalearen esanetan, «garbi dago gaur egungo tolo-

saldeko errealitatea oraindik ere, gordinago dela». Eta hau gehiagora joango dela ohartarazten dute, «euskal langile eta gizarte osoak tainanako harresirik eraikitzen ez dugun bitartean eta kalera zuzenen mozorroa diren espediente hauek salatu eta borrokatzen ez ditugun bitartean».

Krisi «bortitz» honen eragile zuzena, instituzioetatik inposatutako eredu ekonomiko eta sozial neoliberala dela garbi du ezker abertzaleak. «Bankari, espekulatuzaile eta abarrak amestutako panorama instituzionala sortu duelarik gaur egun, indarrean den, alderdien legeak».

Atzo, kotxe karabanak

Atzo goizean, eskualdeko herri gehienak zeharkatuz, kotxe karabanak egin zituzten, grebarako deialdia zabalduz. Ordu ezberdinetan, eta zonaldeka hasi ziren kaleak zeharkatzen, eta 12:00ak aldera Tolosara hurbildu ziren denak, elkarrekin, eskualdeko hiriburua zeharkatzeko.

Berastegin
Zelai taberna
ALOKATZEN DA
Deitu arratsaldean
606 742 408

E **Elkarrizketa digitala** infoNEREA SANCHO Sexologoa

Altzo » Irakurleen galderak «gustura» erantzun zituen Nerea Sanchok; norberaren ezagutzaren garrantzia azpimarratu nahi izan zien elkarrizketan parte hartu zutenei.

ERREDAKZIOA

«Galdera batzuk orokorrak, besteak pertsonalagoak, guztiak ere oso interesgarriak». Gustura zegoen Nerea Sancho elkarrizketa digitalaren amaieran. Gisa honetako ekimenen aldekoa da bera eta jendearekin zuzenean hitz egiteko aukera «oso positiboa» iruditu zitzaion. Galdera mordoa jaso zuen astelehenean Altzoko sexologoa.

Kaixo Nerea! Azken urteetan iruditzen zait gazteek ez dutela sexualitatea ulertzen, ez dutela «ondo erabiltzen»: helburua askoentzat sarketa da, birjinitatea galtzea, berdin du lehenengo aldian disfrutatzea edo ez, baina larra jo behar dut. Hori da nire sententzia... Zer iruditzen zaizu zuri? Idoia

Kaixo Idoia, uste dut diozunak baduela zentzurik. Nik uste dut gazteak ulertu behar ditugula: larritan egiteko presioa jasaten dute eta aldi berean ez dute sexuen hezkuntzarik jasotzen. Hori kudeatzea ez da erraza. Euren nortasuna garatzen ari dira eta kontrako mezuak jasotzen dituzte. Lagun taldean txertatuta sentitzea prioridade bihurtzen da adin horretan. Mila esker gazteetaz arduratzeagatik.

Emakumeentzat gustagarria zer den asmatzea askotan zaila da... Aholkuren bat emango? Pablo

Kaixo Pablo. Galdera ederra. Politikoki zuzena erantzuten badizut, emakume bakoitza mundu bat dela esan behar dizut. Eta ez da gezurra. Baina imajinatzen dut, zuri emakume zehatz bat edo batzuk interesatzen zaizkizula. *Los hombres son de Marte y las mujeres de Venus* liburua pista handiak ematen dituela uste dut. Gizonak eta emakumeak elkar ulertu ahal izateko pistak. Ez da gauza bera bikote garenean edo sexukide edo bikotekide bila bagabiltza... Sexu aholkularitza zerbitzuetan: online, telefono bidez edo aurrez-aurre, erantzun zehatzagoak ematen ditugu, pertsonalizatuagoak. Mila esker zure galderagatik!

Askotan ez al zaigu gehiegi kostatzen sexuaz lasai hitz egitea? Zer gaitik? Haritz

Kaixo Haritz. Bai, halaxe da. Kulturalki sexualitateen inguruko gaiak tabu izan ditugu. Jaso dugun hezkuntzak irakatsi digu sentitzen ditugun desioak, kezak... argi eta garbi ez adierazten. Eta gure ingurunean ere ez du ongi jasotzen beti gainerotikoez hitz egiteak. Hala ere,



L. TERRADILLOS

«Sexualitatea norbera gizon edo emakume bezala sentitzea da»

topatu ditzakegu lagun solte batzuk gure intimitateari buruz hitz egiteko. Ongi izan.

Aupa Nerea! Sexologo bezalajendeari esaten diozuna gero zuk aplikatzea zaila al da? Naiara

Kaixo Naiara, galdera ausarta eta aldi berean errealista. Ez dut gogoko sinesten ez ditudan irtenbideak besteie aholkatzea, besteen errealtateetan jartzen saiatzen naiz erantzun baino lehen. Sexologoa geure buruak ezagutu behar diturre, erantzun zehatzagoak ematen ditugu, pertsonalizatuagoak. Mila esker zure galderagatik!

Askotan ez al zaigu gehiegi kostatzen sexuaz lasai hitz egitea? in dizuen kontsultaren bat... Anekdotaren bat kontatuko al zenuke? Milesker, Olaia

Kaixo Olaia, askotan galdetzen dizkigute gure laneko bitxikeriei buruz. Gure erantzuna nahiko etsigarria izaten da, jasotzen ditugun kontsultak oso pertsonalak dira eta bakoitzaren sexualitatea

beresia eta bakarra denez, ez zaigu ia ezer bixia iruditzen. Jakinmina izatea oso positiboa iruditzen zaigu.

Euskaldunek sexu gutxi praktikatzen dugunaren ustea oso zabaldua dago. Horrela da?

Kaixo. Ez ditut datuak, uste dut Eustaten ez dela horrelakorik bil-tzen. Estatuko *Ministerio de Sanidad y Consumo*-n ikerketa orokor bat bultzatu zen ia hori jasotzeko asmoarekin. Ikusi beharko genuke zeri deitzen diogun sexua praktikatzeko: sarketa al da sexua praktikatzea? Hala ustez gero, saltzen diren kondoi kopuruak estimazio bat ematen digu baina nire ustez horiez da indikadore on bat, ez sarketa eta ezta kondoiaren erabilera ere. Gizon eta mutil askok gehiago praktikatu nahi dute, ikusi beharko genuke ea firtean ibiltzeko zein estrategiak dituzten. Inork ez die irakatsi... Sentitzen dut erantzun zehatzago bat ez izatea.

Bikotearekin urte asko egin eta

gero, askotan monotonian sartzen zara. Zer egin daiteke sexuan ez aspertzeko? Milesker Nerea

Kaixo, gauza asko egin daitezke. Lehenik, bikotearekin horren inguruan hitz egitea aholkatzen da. Zenbait liburuk ideiak ematen dituzte eta ausardia pixkatekin, berrikuntzak egin daitezke. *Revitalice su vida sexual* motako liburuetan idea onak datoz. Hala ere, denbora tarte batean larra ez jo-tzeak, abstinentziak, desioa pizten du askotan. Probatu al duzue, aste betez, txortan ez egitea baina bes-tea zirikatzea, ukituz, xuxurlatuz, gorputza erakutsiz... araua, aste horretan ezin dela jo. Beste aukerak bat: eskuak erabili gabe egitea... Ea denbora baduzuen horren inguruan ideiak batzeko!

Zer da sexualitatea?

Iepa. Sexualitatea, norbera gizon bezala gizon sentitzea da. Eta emakumeen kasuan, emakume sentitzea. Sentipen hauek garatzen

doaz adinean zehar eta ditugun esperientziak ere aldarazten dute. Jazten garen moduak ere femeni-noago edo maskulinoago sentiarazten gaitu, adibidez. Baita nola espresatzen garen ere... Gehien-agoak ez ditu bereizten sexualitate-a, sexua, sexu harremana... eta abar bezalako hitzak, ez baitgute eskolan irakasten eta kalean ez delako behar adina hitz egiten.

Kaixo Nerea! Tamainak inportatu du? Jendeak kezka asko izaten du?

kaixo. Kontrakoa esango banizu, ez zenidake sinistuko eta gainera ongi geratzeko erantzun hutsa izango litzateke. Gakoa, nire ustez, maitale ona izateko beharrezkoa den edo ez ikustea da. Inportatu du zakilaren, titien, ipurdiaren tamainak maitale ona izateko? Bakoi-

«Gizaki oro sexuduna da eta, beraz, oinarri-oinarrizko eremua da, oso gustura nago lanean»

«Abenturarako jarrera eta liburuak dira ingrediente nagusiak sexualitateaz gozatzeko»

«Norbere burua ongi onartzen dutenek puntu asko dituzte esperientzia positiboak izateko»

tzak, dituen ezaugarri, gaitasun, iaiotasun positiboak azpimarratu eta garatzen baditu, tamainak garrantzia galduko du. Bestetik, zakilaren tamaina txikia dutela pentsatzen duten horiek, eta horregatik konplexua dutenek, esan dezaket, badaudela moduak euren zakila maitatzeko. Sexologoen lanetako bat, gorputza onartu eta maitatzen irakastea da. Eskerrik asko galde-tzeagatik.

Kaixo! Ez dut esango nire bikotearekin ohean errutina dagoenik, baina zerbaite berria edo berezia egin nahi nuke. Liburuetan jartzen duena praktikan jartzea gomendatzen didazu? Leire

Kaixo Leire. Poztu nau zure galde-rra irakurtzeak. Uste dut liburua altxorrek direla eta urteetako esperientziak gordetzen dituztela, gurekin partekatzeak. Bai, praktikan jar ditzakezue biok nahi baduzue. Hala ere, ez duzue zertan liburu-ideiak zehatz-mehatz burutu beharrik, zuten gogo eta posibilitateetara moldatu ditzakezue. Hasieran *afizionatuak* senti zaitzekete baina denbora eta gogo jarri gero, luzera esperientzia berri eta oso positiboak izan daitezkeela iruditzen zait.

Kaixo Nerea! Nolatan edo zergatik Sexologo lanetan? Zer esan zizuten guraso eta ingurukoek? Miren

kaixo Miren, askok galdetzen digute, lanbide berezia balitz bezala edo. Niretzako munduko lanbide-

rik ederrena da eta ez nago exajeratzen. Loteria tokatuko balitzait ere jendeari laguntzen jarraitu nahiko nuke. Gizaki oro sexuduna da eta beraz, oinarri-oinarrizko eremua. Nire familia inkondizionalki lagundu nau nire erabakietan, eta honetan ere bai. Bokazioa duzunean ingurukoak ados badaude, askoz hobe baina ez badaude ere, ezin alde batera utzi. Imajinatzen dut, inguruko zenbaitzuk ez dutela oso ongi ulertuko zertan datzan gure lanak. Gizonak eta emakumeak bihurtzeko ibilbidea lagundu eta elkarrekin ongi konpontzea da gure helburua. Estimatzeko det zure galdera.

Egunon Nerea! Oraitxe entzun dut irratian hurrengo eguneko pilodora delakoa lortzeko ez dela beharko errezetarik eta edozeinek eskuratu ahaliko duela. Zer iruditzen zaizu hori? Milesker!

Kaixo. Bai, nik ere bertan entzun nuen albisteetan. Uste dut gure lurraldean *partxeak* jartzen dituzte garelako. Lehenik sexuen hezkuntza bermatu beharko litzateke. Bigarrenik, kondoiaren prezioa jaitsi. Eta hirugarrenik, koito osteko pilula zerbitzu espezializatuaren eskaintza. Honekin esan nahi dudana da, koito osteko pilula ematen denean, aholkularitza egin behar dela. Zertarako? Erabiltzaileak berriro erabili behar ez izateko informazioa jasotzeko, edota negoziazio gaitasunak landu ahal izateko (kondoiaren erabiltzea negoziatzeko, besteak beste). Koito osteko pilula lortzea erraztu nahi dute baina ez diote prezioa jaitsi, kontraesana izan daiteke. Gai polemikoa, baietz?

Kaixo Nerea! zer iritzi duzu Dogging bezalako aukeren inguruan? Idoia

Idoia Idoia. Imajinatzen dut horrelako anglizismoa askok ez dutela ezagutuko. Leku ireki batean larriaz jotzeko gelditzea da. Talde bat biltzen da normalki, Internet bidez hitzartu ondoren. Topagune horietara ikusleak ere joaten dira bertan kitzikatzenko asmoarekin. Dakidanez, herri beheeretan horrelako topaketak baimendu dituzte parke publiko batzuetan, beti ere, haurren ordutegiarekin kanpo eta gunean zaborrik ez uzteko baldintzapean. Uste dut erabaki hori oso zentzuzkoa dela eta gure publiko batean funtzio bat baino gehiago eskaini dezakeela. Imajinatzen dut gure lurraldean horrelakorik egitea zaila izan daitekeela, sexuarekiko jarrengatik eta zaborrak botata uzteko ohituragatik. Erantzun al dizut?

Egunon Nerea! Beste libururik aterako duzu edo ateratzen ari zara sexualitatearekin edo heziketarekin lotuta? Eskerrik asko! Maite

Maite Maite. Bai, laugarren liburuarren prestaketa lanetan nabil, *Kilimaki*! Sexuen Hezkuntzari buruzko izango da baita ere, gazte-errentzako. Mila esker interesatzeagatik!

Ze jendek disfrutatzen du gehien sexualitateaz? Iker

Kaixo Iker. Galdera zabal... Norbere burua ongi ezagutzen dutenek eta onartzen dutenek, puntu asko dituzte esperientzia positibokiak. Horra.

Ilepa Nerea! Zein gomendio emango zenuke sexualitateaz gozatzeko bai bikotean edo bakarrik? Eskerrik asko.

Kaixo. Bikote bezala eta bakarrik gozatzeko ideiak oso desberdinak izaten dira. *Gazte zulo* aldizkarian hilerio ideiak ematen ditugu eta aurreko aleak irakurgai ditugu webgunean. Agian haietako batzuk interesgarriak suertatuko zaizkizu/e. Orokorrean, abenturarako jarrera eta liburuak dira ingredientenagusiak nire ustez.

Kaixo Nerea! Zuzenean ari naiz zure galderak irakurtzen eta lan asko dago sexologo bezala? Zuzenean jende askok jotzen du (zein adinetako jendea da gehien hurbiltzen dena) ala zuek mugitu behar zarete eskoletara eta... Eskerrik asko

Kaixo! Sexologia lan asko dagoela esango nuke nik, agendan tarte eskasak ditut nik behintzat. Alor desberdinak daude sexologian: eskoletako hezkuntza, unibertsitateko hezkuntza, helduak, hezitzaileak, gurasoak... aholkularitza e-posta bidez, telefonoz, aurrez-aurre... ikerkuntza... terapia... dibulgazioa (prentsa, irratia, telebista)... askotan gugana jotzen dute eta hasten ari zarenean, zuk zeuk joan behar izaten duzu zure zerbitzuak eskaintzera. Adin guztietakoak ditugula esan dezaket. Haurrak eta zaharrak gutxiago. Lanbide bezala oso zabalak izan daiteke eta alor desberdinak jorratzen joan zaitezke esperientzia hartzen duzun neurrian.

Egunon Nerea! Zer darabilzu orain esku artean? Eta nolako da zure egun bat? mila esker

Kaixo. Galdera ona! Bi aste barru edo Donostian denda erotikoa irekiko dugu. Denda erotikoa hori nahiko berezia izango da, izan ere, bertan sexu aholkularitza eskaintza dugu. Horretaz gain, sexualitateen normalkuntzarako proiektu bat da, hau da, gure helburua, denak lagundu behar du sexualitate normalizatzeko. Horretarako hainbat kolektiborekin jartzen ari gara kontaktuan: zaharrak, sukaldariak, ONCEko itsuak, etab. Urri-tasun fisiko zein psikikoak dituzten pertsonentzako balio garria izan nahi dugu... Salamanka pasealekuan irekiko dugu, begi bistan egongo da, edonork ikus dezakeen leku batean. Nire egunak elkarren desberdinak dira eta ez daude bi berdin. Atzo Bilbon izan nintzen, gaur Alton eta Donostiara noa eta bihar Madriler... ez dut ordutegi finkorik baina egunero behar bezala egiten dut lo. Ongi jaten dut egunero eta nire familia eta lagunekin kontaktua mantzeko tarte ateratzen dut egunero. Bizikletaz,



I. GARCIA

motorrak, kotxez, abioiez... ibiltzen naiz... Egun bakoitza abentura bat da, eta hori oso aberasgarria da baina oso nekagarria ere bai.

Aupa! Aurreko erantzun batean eskola aipatu duzu Nerea. Sexualitatearen inguruan zer moduzko hezkuntza jasotzen dute gure gazteek? Milesker! Igor

Kaixo Igor. Nik uste dut sexuen hezkuntza oso eskasa dela hemen. Esate baterako, matematika barneratzeko urtean jasotzen da hezkuntza, astero ordu mordoak bat. Sexuen Hezkuntzak, hau da, gizon bihurtzeko, emakume bihurtzeko eta elkarrekin moldatzeko, zorte askorekin urtean 6 ordu ditu. Ez dugu ikasten ligatzen, desioak kudeatzen, beste sexuarekin komunikatzen, maitasuna ulertzen, jelskortasuna kudeatzen... hutsune handia dagoela uste dut. Eskerrik asko galdetzeagatik!

Kaixo Nerea! Ez al duzu uste jendek gehiegi begiratzen diogula aldamenekoari? Esan nahi det, konplejuak ere hortik datozela, ez? Nola gaintitu daitezke? Milesker, Myriam

Kaixo Myriam! Halaxe uste dut nik ere! Ondokoekin konparatzen, beti egongo da gu baino hobegoa dena edozein arlotan. Gure buruak osotasunean begiratu beharko ditugu, *pack* bat bezala gara, gauza onekin eta gauza txarrekin. Eta ondokoekin konparaketak perspektiba erroreak dira. Uste dut konplexuak gaintzeko denbora, esfortzua eta konstantzia behar dela. Pertsona bati ariketa mota batzuk balioko diote eta beste batzuei, beste batzuk. Esperientzia batzuk konplexuak desegiten dituzte, beste kasu batzuetan, ezagutza berri batzuk aldatzen dute norbere ikuspegia... Norbere helburuak markatu beharko dituela uste dut eta horiek jarraitu. Ikusi beharko dugu ea ditugun helburuak gureak propioak diren ala besteak diren... helburu asko telebistak eta publikitateak sortarazten dizkigu... Gorputzei dagokie-

nez, funtzionaltasunari begiratu ordez estetikari arreta jartzen badiogu, etsitu egiten gara. Adibidez, nire hankak ez bazaizkit gustatzen formagatik... eta ahazten badut baimentzen nautela alde batetik bestera joatea, aukera paregabea galtzen ari naiz nire hankak maitatzeko. Gainera, esker txarrekoak gara oso zentzu horretan. Gai hau oso interesgarria iruditzen zait.

Batzutan lotsa sentitzen dut nire gorputzarekin, potxola nagoelako. Nola gaintitu dezaket hori? Zaila egiten zait eroso sentitzea. Aholku bat eskertuko nuke! Tolosar bat

Kaixo tolosar! Ez da harritzekoa... egun kriminalizatuta dago gorputz borobildua izatea... duela hamar kada batzuk modan zegoen potxola gotea, jateko urritasuna zegoelako. Orain eta hemen, jatekoa eta bestelako erosotasunak soberan daudenez, modak kontrako azpimarratzen du, argaltasuna. Orain, publizitatea, gure familia eta lagunak begi txarrez begiratzen gaituzte lodixkak baldin bagaude, ez gaituzte garen bezala onartzen eta horrek gaizki sentiarazten gaitu, noski. Gaintitzeko ariketa desberdinak egiten ditugu sexologok kontsultan eta hemen laburbiltzea nahiko ausarta da... argala egongo bazina zer aldatuko litzateke? Egin zerrenda bat. Denbora hartu pentsatzeko. Eta behin zerrenda hori duzula... nola lor ditzakezu gauza horiek berak orain? Ez etsi. Zure burua den bezala maitatzea ez da txantxa.

7 hilabeteko umetxo bat daukat, gure lehen umea. Baina ez nuen uste hain gogorra izango zenik bikotearekin erabat aldentuta nagoelako. Nire umorea asko aldatu da eta ez daukat sexurako gogorik... Aholkurik bai? Milesker Nagore

Kaixo Nagore, ez zara lehenengoa ezta azkena ere horrela bizitzen duena garai hau. Nekatuta egon zaitezke. Informazio gutxi honekin nahiko ausarta da aholkua

matea baina kasu hauetako askotan egin beharkekoa: *kanguro* bat kontratatu, lo egin deskantsatuta egoteko eta zure bikotearekin egoteko denbora hartu. Zer gertatu beharko litzateke zure bikotearekin txortan egiteko gogoia izateko? Aukera hori sortzeko? Baldintza horiek sortzen saia zaitezke. Ama bezala errudun sentitu zaitezke, zure haurtxoaz banatzeagatik, baina pentsatu dezakezu baita ere, haur horrek pozik dauden gurasoak behar dituela.

Jode, oso interesantea da hau Nerea! Hehiagotan joan beharko zinateke, jeje! Emakumeenganako tratu txarrak sexu heziketarekin daude lotuta ez? Nola eman bultzada horri? Zer egin dezakegu guk, sexologiak gutxi dakigunok? Jokin

Kaixo Jokin! Eskerrik asko! Galderak erantzuteko beti nago prest *Gazte zulo*-ko webgunean, nahi izanez gero. Sexuen hezkuntzak gizon egiten laguntzen du eta beraz, gizon izateak dakartzan ondorioak eta ezaugarriak ezagutzea, hala nola, biolentziarako joera. Norbere burua ezagutzen badu, haserredietan erretiratzeko ikas daiteke, emozioak kudeatzen ikas daiteke txikitatki. Eta emakumeak lehen mailako pertsonak kontsideratzen, gizonetzkoen pareko. Halduen arteko tratu txarren inguruan ni ez naiz aditua, izan ere oso alor zehatza da. Gatazken kudeaketaren inguruan badaude liburuak, ikastaroak... uste dut klabe onak ematen direla.

Kaixo Nerea! Altxorekin zein lotura mantentzen duzu? Ez zara bertan bizi ezta? Zein oroitzen dituzu? jarraitu horrela...

Kaixo. Ziklikoki Bilbora, Madriler eta Gasteizera joaten naiz eta Altxora. Bertan nire familia bizi da eta gure etxean han dugu. Altxon denbora gelditu egiten dela dirudi eta oso maiz joaten naiz hara. Gaur goizean ardi txintxarrien soinua izan da entzun dudana lehen gauza. Mila esker!



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leizalaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Berrobi.** XIX. Kultur Astea: 12:00etan txakoli, eta 17:30ean Umeen erromeria.
- **Irura.** Kultur Astea: 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 17:30era xake txapelketa plazako aretoan.
- **Tolosa.** Veleta-Aiz Orratz elkar-tearen festa, 75. urteurrena dela eta: 10:00etan meza Santa Klaran, ondoren hamaiketako eta toka txapelketa elkartean, eta 14:30ean bazkaria Fronton jatetxean.
- **Tolosa.** Udaberri Dantza Taldeko ikasleak eta Musika Eskolakoen Banda, 12:00etan Leidorren.
- **Zizurkil.** Landarbaso abesbatzak San Millan elizan 11:00etako mezan abestuko du eta ondoren kontzertua eskainiko du.

Zinema

- **Tolosa.** Gaur Leidor aretoan: 17:00etan, *Hula girls*, 19:30ean,

The visitor, eta 22:00etan *Los abrazos rotos*. Bihar, (ikuslearen eguna) 20:30ean, *The visitor*.

- **Villabona.** Gaur, Gurea aretoan: 17:00etan, *Montruos contra alienigenas*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK Gaur

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.
- **Bihar**
- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.
- **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
- **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.



A Agurrak



Zorionak!

Ander Balerdi. Ondo pasa zure lehenengo jaunartzean Lizartzako familiaren partetik.



Zorionak!

Aitor Munduate (Anoeta). Bihar urtebete. Zorionak eta muxu handi bat aiton-amoneta eta arreba Uxuen partetik.



Urte askoni!

Nahia Martin Kortajarena (Zizurkil). Zorionak. Gaur 3 urte. 3 muxu potolo familiaren partetik.

Herriz herri kultur ekitaldiak

KULTURA ● Kultur Astez betetako asteburua da oraingoa. Izan ere, Alkiza, Irura eta Berrobin ekitaldi ugari burutu dituzte egun hauetan. Lehendabizikoan, Aiztondoko kirol topaketak jokatu zituzten arratsaldean. Haurrak, talde ezberdinetan banatuta, hainbat jolasetan hartu zuten parte. Bestalde, baserriko tresna zaharrekina-eta osatutako erakusketa inauguratu zuten. Iruran, berriz, Ikastolaren Eguna ospatu zuten atzo.

Eguerdian, ikasleek hainbat jokutan hartu zuten parte, honez gain, piratez mozorrotuta, ikuskizun bat eskaini zuten. Ondoren, guraso eta haurrek, Ikastolaren atarian bazkaldu zuten. Azkenik, Berrobin, mus txapelketa jokatu zuten solastokian. Denera 12 bikotek hartu zuten parte. Ondoren, toki berean, toka txapelketa izan zen. Kultur Asteekin jarraituz, gaur ere hainbat ekitaldi izango dira hiru herri hauetan. A.I./E.E.